

2019KO MAIATZAREN 23KO UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2019ko maiatzaren 23an, goizeko zazpi t´erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez

Ez da/dira batzarreratu

- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 07:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

LEHENENGOA.- 2019-KALD-000002-00 ERREFERENTZIAZKO KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA PROPOSAMENA.

BIGARRENA.- ELDUAINGO HAPO-REN AURRERAPEN DOKUMENTUARI AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEN ANALISIAIA ETA ERANTZUNAK ETA HAPO-REN OINARRIZKO IRIZPIDE ETA HELBURUEN ONARPEN PROPOSAMENA.

HIRUGARRENA.- MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAIINTZAREN KALILATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ELDUAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

LAUGARRENA.- TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUARI BABESA EMATEA.

LEHENENGO PUNTUA:

2019-KALD-00002-00 ERREFERENTZIAZKO KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA PROPOSAMENA.

Alkatetzak agindurikoa betez Idazkaritza-Kontu-hartzaitzak aurtengo udal aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa 02/2019 espedientea osatu du eta berau ikusi da.

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	33.500,00
6	INBERTSIO ERREALAK	11.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		45.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	45.000,00
GUZTIRA		45.000,00

Kontuan harturik espediente honetan barneraturiko Alkatetzaren Memoriak diona, non agerian jartzen da, funtsean, espediente honek honako beharrei erantzuten diela.

Udalbatzak, aho batezko adostasunez ,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:

2019ko Udal Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 02/2019 kreditu aldaketa proposamena hasierako izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

Kreditu aldaketa hau arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

BIGARREN PUNTUA:

ELDUAINGO HAPO-REN AURRERAPEN DOKUMENTUARI AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEN ANALISIAIA ETA ERANTZUNAK ETA HAPO-REN OINARRIZKO IRIZPIDE ETA HELBURUEN ONARPEN PROPOSAMENA.

Elduaingo Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentua, 2018ko uztailaren 4ko Osoko Bilkurako akordioaren arabera, jendearen aurrean erakustaldi publikoan jarri zen.

Osoko Bilkura horretan erabaki zen dokumentua erakustaldi publikoaren izapidean jartzea, bi hilabeteko epez, Ingurumen Ebaluazioren Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera.

Gipuzkoako Buletin Ofizialean 2018ko uztailaren 20an argitaratu zen. Geroago, 2019ko urtarrilaren 24an, bi hilabeteko jendearen aurrean erakustaldi publikorako epe berri bat hasi zen, Gipuzkoako Buletin Ofizialean eta aldizkari nagusietan argitaratu zen.

Aipatutako epe horretan hainbat iradokizun aurkeztu dira, jarraian aztertzen direnak:

- ❖ GGE jaunak 2018ko irailaren 11an aurkezturiko iradokizuna, 173 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ Gipuzkoako EHNEk 2018ko irailaren 20an aurkeztutako iradokizuna, 174 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ AOL andreak, 2018ko urriaren 29an aurkezturiko iradokizuna, 204 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ JBI jaunak eta MSH andreak, 2018ko irailaren 8an aurkeztutako iradokizuna, 213 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ JAA jaunak, 2019ko martxoaren 20an aurkezturiko iradokizuna, 78 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ NEC andreak 2019ko martxoaren 21ean aurkezturiko iradokizuna, 79 erregistro zenbakiarekin.
- ❖ ALE jaunak 2019ko martxoaren 22an aurkezturiko iradokizuna, 80 erregistro zenbakiarekin.

GGE jaunak 2018ko irailaren 11an aurkezturiko iradokizuna, 173 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

Interesdunak Aurrerapen dokumentua gazteleraz bakarrik aurkeztu izana aztertu eta kritikatzeko du, bere ikuspuntutik dokumentua euskaraz garatzea soziala eta logikoa eta gainera juridikoki berdina izanik.

Dokumentuaren inpaktu soziolinguistikoa neurtzeko aurrerapenean planteatu diren analisi eta konponbideak zeintzuk diren galdetzen du.

Honetaz gainera, planak udalerrian sor ditzaken gaitz soziolinguistikoak aztertu eta konpontzeko azterketa zehatzago bat eskatzen du. 1991tik 2011 arte udalerriko euskaldunen tasa %98-tik %91-ra jaitsi dela eta hau hirigintzaren ondorio zuzen bat dela dio.

Eragin soziolinguistikoarekin erlazionaturik udalerriko biztanleria gaztea handitzeko helburuarekin hartutako irizpidea zein den ere galdetzen du: Nongoak izango dira herrira bizitzera etorriko diren gazteak?

Azkenik, ELDUAINEN DAUDEN ETXEBITZA HUTSEN ZENBATEKOAREN INGURUAN HITZ EGITEN DU ETA ETXEBITZA BERRIEN HELBURUA DUDAN JARTZEN DU HERRIAN HUTSIK DAUDEN ETXEBITZEN KOPURUA KONTUAN HARTURIK.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

Euskara da herriak, udaletxeak eta bertako biztanleek erabiltzen duten hizkuntza, eta euskara izango da Plan Orokorreko dokumentuak garatzeko erabiliko den bitartekoa.

Egoera soziolinguistikoarekin erlazionaturiko Plan Orokorreko azterketa eta planteamenduei dagokionez, hauek hasierako onespeneko dokumentuan era zehatzean tratatu eta aurkeztuak izango dira, aurrerapen dokumenturako Euskararen Aholku Batzordeak 2012ko irailaren 11n onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planetik eratorritako irizpide orokorrak hartu direlarik.

Xehetasunetan murgildu gabe, hirigintza aldetik, jende euskalduna herrira erakartzeko parámetro erabakigarrienak hirigintza garapen handiak sahiestea eta bertako tipologiaren eraikitzea sustatzea direla azpimarratu behar da. Bi irizpide hauek kontuan hartuak izan dira Plan Orokorreko ekitekoan.

Etxebizitza hutsen inguruko kezka dagokionez, planaren hurrengo garapenean gogoeta hauek kontuan hartuak izango dira eta herriko higiezinaren parkearen garapenarekiko modu paraleloan etxebizitza hauen berrokupazioa erraztu eta sustatzeko neurriak baloratuko dira.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

Gipuzkoako EHNEk 2018ko irailaren 20an aurkeztutako iradokizuna, 174 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

EHNE-ren iradokizunak lau ataletan banatzen dira:

1. Nekazaritza eraikinen eta instalakuntzei dagozkien distantziak. Nekazaritza eraikinen eta

instalakuntzen distantziak aztertzea eskatzen da, egungo Arau Subsidiarioetan distantzia horiek 515/2009 dekretuan eta biztanleria handiagoko herrietako planetan zehaztuak baino murriztaileagoak baitira. Gainera, jarduera lizentzia behar ez duen eraikinek dekretuko zehaztapenak ez dituztela bete behar adierazten du.

2. Eraikuntzaren baldintzak Plan Orokorren berriaren idazketan “partzela hartzailea” terminoa Nekazaritza ko Lurralde Plan Sektorialeko zehaztapenak interpretatuz eta erregistro finka berdineko parte diren baina fisikoki jarraiek ez diren partzela taldekatze bezala definitzea eskatzen da. Ustiapenei laguntzaile diren eraikinak bertako eraikin nagusia kokatzen den partzela berean ez kokatzeko askatasuna eskatzen dute Nekazaritza eraikinen luzera eta altuera ezaugarriak egokiak ikusten direla esaten da, hauek 60 m luze eta gailurreko 9 m-ko altuera izanik, betiere hauek justifikatutako arrazoi teknikoen bitartez handitu daitezkeen bitartean.

3. Kokapena. Atal honetan Nekazaritza LPS-ak egun dauden erabilerekin bateraezinak bezala kategorizatzen dituen inguruetan kokatzen diren nekazaritza eraikuntza eta jardueren inguruko arazoaren inguruan EHNE-ak duen kezka azaltzen da. Honetaz gainera, Lurzoru Urbanizaezinaren azterketa zehatzago bat eskatzen da, Nekazaritza LPS-ak definitutako eta zuzenak ez diren edo gaizki definitutako lurzoruen kategorizazioetatik eratorritako arazoak saihesteko.

4. Irizpide orokorreko proposamena Nekazaritza jarduerak gehiago ez oztopatzeko, landa ingurunearen garapenerako neurriak hartzea.

IRADOKIZUNEI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

1. Nekazaritza eraikinen eta instalakuntzen distantzietan dagokienez, eskatzen den moduan, neurriak arretaz aztertuko dira herriaren eta bertako biztanleen eta landa ingurunea ustiatzen duten eragileen beharrak eta ezaugarriak asetzeko. Hasiera batean egokia ematen du nekazaritza jarduera ezberdinak ezartzeko distantzia horiek aldatzeko.

2. Zentzu honetan Udaletxearen helburuetako bat aurkeztutako arazoari trataera egoki bate ematea da. Honetarako, Elduaingo Plan Orokorreko Hasierako Onespeneko dokumentuan zentzu honetan lan egingo da Nekazaritzako LPS-ko “partzela hartzailea” terminoaren interpretazioaren inguruan eta erabilera osagarrien kokapena mugatzearen inguruan aurkeztutako iradokizunak asetzen saiatzeko.

3. Aurkeztutako dokumentuko 3 puntuan proposatutakoa kontuan hartuko da. Plan Orokorreko Hasierako Onespeneko dokumentuaren lanketa prozesuan, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioaren inguruko puntu arazotsuak kokatzen saiatuko gara ahal den neurrian nekazaritza jardueren garapena errazteko. Honetaz gainera, Elduaingo Udala konsziente da Lurzoru Urbanizaezineko kategorien aldaketak suposatzen duen arazoaz eta lurzoruaren kategoria aldatzen den guneetan kokatzen diren jarduera eta eraikuntzak kontsolidatzen saiatuko da hauen jarraipena bermatzeko. Aurretik esandako guztiaz gainera, Plan Orokorreko Hasierako Onespeneko dokumentuaren erakusketa publikoa egin ondoren, aurretik aipatutako irizpideen inguruan aurkeztutako argudio eta proposamen guztiak sakontasunean aztertuko dira

4. Antolamendu berrian herriko nekazaritza munduaren alde egiten saiatuko gara Elduain nekazari izaera garrantzitsuko udalerrri bat izanik.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

AOL andreak, 2018ko urriaren 29an aurkezturiko iradokizuna, 204 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

Plan Orokorreko Aurrerapen dokumentuan Errementari baserriaren eta bere lursailen inguruan ematen diren zehaztapenekin desadostasunean azaltzen da.

Baserria Elduaingo hiriguneko 29 zenbakian aurkitzen da, Plaza Zaharra bezala ezagutzen denaren ondoan, eta bere ingurunea AI2 – Plaza Zaharra Jarduketa Integratuagatik kaltetua gertatzen da. Honek egun indarrean dauden Elduaingo Arau Subsidiarioek aurreikusten duten eta gunea beregituratzeko eta bere garapena bideragarri egiteko helburua duen jarduketa bat berreskuratzen du.

Jarduketaren emaitza atxikitako bi bizitzako 2-4 etxebizitza eta plazaren handiagotze eta birsorkuntza izango zen. Horrela, gaur egun 8176021 katastro partzela dena herriko elkartze puntu berrian bilakatuko zen.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

Aurrerapen dokumentuan esaten den moduan, Plaza Zaharra eremua udalerrri barruan interes handiko gunea da antzinan udaletxea kokatzen zen lekua baita.

Elduaingo Udaletik interesez ikusi da helburu hau berreskuratzea eta antzinan kokaleku sinboliko bat zena errekuiperatuz hiriguneko beheko eremua leheneratzea.

Proposamena udalerriko eta udalerriaz gaindiko helburuetan integratzen da. Izan ere, helburu hauek egun antropizatu gabe dauden lurretan azalera zabaldu beharrean herrigunearen dentsifikazio bat bilatzen dute.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

JB1 jaunak eta MSH andreak, 2018ko irailaren 8an aurkezturiko iradokizuna, 213 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

Kamioetxe etxea kokatzen den 07-208 katastro partzela Elduaingo herrigunean sartzea eskatzen da. Gaur egun eraikina Lurzoru Urbanizaezinean dago eta bere zonifikazio orokorra “D1 Nekazaritza eta Abeltzaintza” da. Partzelak muga egiten du Hiri Lurzoruarekin eta egun eraikinaren erabilera etxebizitzarena bakarrik da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

2/2006 Lurzoruaren Legeko 11. artikulua arabera, lursail bat Hiri Lurzoru bezala klasifikatu daiteke ondorengo kasuetan:

1. lehendik dagoen hiri-bilbean –sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egiten duen neurrian– sartuta dauden edo sar daitezkeen lursailak.

Partzela lehendik dagoen hiri-bilbean sartuta dagoela kontsidera daiteke, Elduaingo gainerako herrigunearekin multzo bat osatzen baitu.

1.a. Gutxienez, hornigai hau edukitzea: ibilgailuentzako sarbidea –bide zolatuz eginga eta herritarrek benetan erabilgarria–; ur-hornidura; euri-ura eta ur beltza husteko sarea; behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura. Hornidura horien tamaina, emaria, ahalmena eta tentsioa, berriz, eraikitze eta lurzorua okupatzeko lehendik dauden eraikinei eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako eraikinei zerbitzu egokia emateko adinakoak izan beharko dira.

Partzelak egun 2/2006 Lurzoruaren Legeak eskatzen dituen hornidura minimo guztiak ditu.

1.b. Lursailek, nahiz eta aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuetako batzuk ez eduki, beren antolamendua finkatuta edukitzea, eraikuntzak, gutxienez, hirigintzaantolamenduaren arabera izendatzen zaien eremu baliagarrien bi herenak okupatzeagatik.

Gunea Elduaingo herriguneko Hiri Lurzoruan integratuko da 2/2006 L.L.-ko 11 artikuluko 1.b atalaren arabera kontsolidatuta baitago.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

JAA jaunak 2019ko martxoaren 20an aurkeztutako iradokizuna, 78 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

Hiri lurzoruan kokatzen den eta 8177064 katastro erreferentzia duen partzelaren kalifikazio orokorraren eta baimendutako eraikigarritasunaren birplanteaketa eskatzen da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

Eusko Jaurlaritzak eginiko komunikatuaren arabaera, 2018ko otsailaren 20an Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena onartu zen. Honen arabera, Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren indarraldian eraiki daitezkeen etxebizitza kopurua 21 etxebizitzakoa da.

Hasiera batean, aurrerapen dokumentuan, etxebizitza kopuru osoa bost jarduketetan biltzea proposatzen zen, definitutako hirigintza eremuak dentsifikatzeko asmoarekin.

Plangintzaren dokumentu berriaren definizio prozesua aurreratu ondoren eta iraunkortasun ekonomikoaren txostena garatuta, aurrerapen dokumentuan proposatutako AI4-Echaurrea lurzoru urbanizagarriko eremua garatzearen bideraezintasuna ikusi da, erreka ondoko Espazio Libreen Sistema Orokorrak dituen mantentze kostu altuak direla eta.

Hau dela eta, eremu hau kanporatzea erabaki da, alde batetik, aurretik Lurzoru Urbanizaezin bezala klasifikatutako Hiri Lurzoru berriak klasifikatzen dituen edozein etxebizitza eremu kentzeko, eta bestetik, bertan aurreikusitako etxebizitzak herrigune barruan hutsik dauden eremuetan berbanatzeko. Horrela, dokumentu honen helburu eta irizpideak jarraitu eta herrigunea dentsifikatzen da etxebizitza eremu berriak antropizatu aurretik.

Aurretik esandako guztia dela eta, indarrean AASS-etan esandako partzelaren eraikigarritasunaren zati bat eta kalifikazio orokorra mantentzea baloratuko da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

NEC andreak 2019ko martxoaren 21ean aurkezturiko iradokizuna, 79 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

8177075 partzelaren kalifikazio berriarekin desadostasuna adierazten da, zeina gaur egun Hiri Lurzoruaren barruan klasifikatua dagoen eta Hiri Urbanizaezin bezala klasifikatzea proposatzen den.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

Eusko Jaurlaritzak eginiko komunikatuaren arabaera, 2018ko otsailaren 20an Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena onartu zen. Honen arabera, Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren indarraldian eraiki daitezkeen etxebizitza kopurua 21 etxebizitzakoa da.

Hasiera batean, aurrerapen dokumentuan, etxebizitza kopuru osoa bost jarduketetan biltzea proposatzen zen, definitutako hirigintza eremuak dentsifikatzeko asmoarekin.

Plangintzaren dokumentu berriaren definizio prozesua aurreratu ondoren eta iraunkortasun ekonomikoaren txostena garatuta, aurrerapen dokumentuan proposatutako AI4-Echaurrea lurzoru urbanizagarriko eremua garatzearen bideraezintasuna ikusi da, erreka ondoko Espazio Libreen Sistema Orokorrak dituen mantentze kostu altuak direla eta.

Hau dela eta, eremu hau kanporatzea erabaki da, alde batetik, aurretik Lurzoru Urbanizaezin bezala klasifikatutako Hiri Lurzoru berriak klasifikatzen dituen edozein etxebizitza eremu kentzeko, eta bestetik, bertan aurreikusitako etxebizitzak herrigune barruan hutsik dauden eremuetan berbanatzeko. Horrela, dokumentu honen helburu eta irizpideak jarraitu eta herrigunea dentsifikatzen da etxebizitza eremu berriak antropizatu aurretik.

Aurretik esandako guztia dela eta, indarrean AASS-etan esandako partzelaren eraikigarritasunaren zati bat eta kalifikazio orokorra mantentzea baloratuko da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik. INFORME

ALE jaunak 2019ko martxoaren 22an aurkeztutako iradokizuna, 80 erregistro zenbakiarekin.

IRADOKIZUNAREN LABURPEN ETA ANALISIA

Hiri lurzoruan kokatzen den eta 8177046 katastro erreferentzia duen partzelaren kalifikazioa eta baimendutako eraikigarritasunaren birplanteaketa eskatzen da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA HIRIGINTZA IKUSPUNTUTIK

Eusko Jaurlaritzak eginiko komunikatuaren arabera, 2018ko otsailaren 20an Euskal Autonomi Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena onartu zen. Honen arabera, Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren indarraldian eraiki daitezkeen etxebizitza kopurua 21 etxebizitzakoa da.

Hasiera batean, aurrerapen dokumentuan, etxebizitza kopuru osoa bost jarduketetan biltzea proposatzen zen, definitutako hirigintza eremuak dentsifikatzeko asmoarekin.

Plangintzaren dokumentu berriaren definizio prozesua aurreratu ondoren eta iraunkortasun ekonomikoaren txostena garatuta, aurrerapen dokumentuan proposatutako AI4-Echaurrea lurzoru urbanizagarriko eremua garatzearen bideraezintasuna ikusi da, erreka ondoko Espazio Libreen Sistema Orokorrak dituen mantentze kostu altuak direla eta.

Hau dela eta, eremu hau kanporatzea erabaki da, alde batetik, aurretik Lurzoru Urbanizaezin bezala klasifikatutako Hiri Lurzoru berriak klasifikatzen dituen edozein etxebizitza eremu kentzeko, eta bestetik, bertan aurreikusitako etxebizitzak herrigune barruan hutsik dauden eremuetan berbanatzeko. Horrela, dokumentu honen helburu eta irizpideak jarraitu eta herrigunea dentsifikatzen da etxebizitza eremu berriak antropizatu aurretik.

Aurretik esandako guztia dela eta, indarrean AASS-etan esandako partzelaren eraikigarritasunaren zati bat eta kalifikazio orokorra mantentzea baloratuko da.

IRADOKIZUNARI ERANTZUNA INGURUMEN IKUSPUNTUTIK

Ez da kontsideratzen iradokizun honek ingurumen ikuspuntutik arazorik planteatzen duenik.

TXOSTENAREN PROPOSAMENA

Plan Orokorreko Aurrerapenaren erakusketa publikoaren epean aurkeztutako iradokizunak ikusi eta beraien edukia aztetu ondoren, Elduaingo Udalari bertan azaldutako irizpide eta helburuen berrespena eskatzen zaio ondorengo ñabardurekin:

1. Herriko egoera soziolinguistikoa hirigintza ikuspuntutik modu sakonagoan aztertuko da, batez ere honek euskararen indartzean eragin dezaken modua.
2. Landa eremuko erabilera eta jarduerak aztertu eta sustatzen ahalenginduko da jardueren, eraikinen eta instalakuntzen eraikuntza eta txertaketa ahal den neurrian malgutu dezaketen neurrien bitartez eta egun daudenak kontsolidatuz.
3. Kamioetxe etxea kokatzen den Lurzoru Urbanizaezineko gunearen birklasifikazioa proposatuko da Hiri Lurzoru moduan Elduaingo herrigunean txertatzeko.

4. Eraikigarritasunen banaketan birplanteatuko da, herrigunearen dentsifikazioari dagokionez jarritako irizpide eta helburuak bereziki jarraituz, herriaren garapen egoki bat bermatu dadin.

Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.4 artikulua hau xedatzen du: "Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu".

Komeni da gogoratzea, era berean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onartu zen hirigintza-plangintzari buruzko Erregelamenduko 125. artikuluko 2 eta 3. puntuek xedatzen dutena: "2.- Plana idazteko mandatua duten organismoko edo udaleko zerbitzu teknikoek eta adituek aurkeztutako iradokizunak eta alternatibak aztertu eta plangintzako kriterio eta irtenbide orokorrak berrestea edo zuzentzea proposatuko dute. 3.- Plana prestatzeko ardura duen organismoak edo udalak dagokiona erabakiko du kriterio eta irtenbide orokorreari dagokienez, jendaurrean egon diren denboran jasotako emaitzak eta eginiko azterketa teknikoak kontuan hartuz, eta Plana kriterio eta irtenbide horien arabera prestatuko da."

Horrela, bada, hirigintzari buruzko legeriak udalari aitortzen dio irizpideak eta helburuak onartzeko eskumena, udaleko zein organori dagokion zehaztu gabe.

Osoko Bilkurari plangintzaren arloan espresuki aitortzen zaion eskumena 123. artikuluko 1. ataleko i) puntuan agertzen da: "Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea eta hirigintzari buruzko legeriak xedatzen dituen plangintzako planen eta gainerako tresnen udal-tramitazioari amaiera emateko onarpena ematea".

Lege-xedapenen azterketa osatzeko, 124. artikuluko ñ) atala hartu behar da kontutan. Hor esaten da alkatearen hondar-eskumenen artean daudela legeek eta Estatuko edo autonomia erkidegoetako legeriak espresuki udalei, eta ez beste inolako udal-organoei, aitortzen dizkien gainerako eskumenak.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen aplikazioa hedatzen badugu, Legearen beraren filosofia eta xedapenen esanahia kontuan hartuz, uste dugu Osoko Bilkurari dagokiola behin betiko kriterioak eta helburuak onartzea.

Lehenik eta behin, Osoko Bilkurari dagokiolako behin betiko onspenak ematea eta, bilera honetan, Plan Orokorraren oinarrian egongo diren behin betiko kriterioak eta helburuak onartuko dira eta funtsezko erabakiak hartuko dira plan horren edukiaren eta xedapenen inguruan.

Printzipio horiek balio juridiko garrantzitsua izango dute Planeko proposamenak eta xedapenak garatzerakoan.

Horregatik guztiagatik, dagokion akordioa hartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA.- Onartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertzeke aurrelaburpeneko kriterioak eta

helburuak, Zebra Lab Arquitecturak eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U enpresak iradokizunen inguruan eginiko balorazio-txostenera moldatuta.

BIGARRENA.- Idatziak iradokizunekin aurkeztu dituzten pertsonen erantzutea, Udaleko Zerbitzu Teknikoen balorazio-txostenean adierazitakoaren kopia emanez.

HIRUGARREN PUNTUA:

MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINZAREN KALILATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ELDUAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkate Jaunak, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldiko jarraipena egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elduaingo Udalaren arteko Hitzarmena aurkeztu du.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

Onartzea, Elduaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean proposatutako lankidetzaren hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Mendekotasuneko prestazio ekonomikoen hartzaile diren titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko baldintzak zehaztea. (1.Eraskina)

Indarraldia: urte 1 (gehienez 8 urte).

2019/01/01tik 2019/12/31ra.

Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Elduaingo udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

Hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, sinatuta.

LAUGARREN PUNTUA:

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUARI BABESA EMATEA.

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

**MOZIOA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN EGITASMOA ONARTZEKO
ETA HURA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEKO**

Emakumeen etxeak eta txokoak Mugimendu Feministaren errebindikazio historiko izan dira eta

dira. Eskaera hori 80ko hamarkadan hasi zen gauzatzen Estatuan, hain zuzen ere, Zaragozako eta Kataluniako ekipamenduak sortu zirenean. Euskal Herrian, berriz, 2003koak dira lehen ekimenak, emakumeen etxeak jarri zirenean Ermuan aurrena eta Arrasaten ondoren, eta 2004an ireki zuten Eibarren.

2010etik aurrera etorriko ziren besteak: Gipuzkoan, Donostian, Hernanin eta Azpeitian; Bizkaian, Basaurin, Ondarroan eta Durangon; eta Nafarroan, Iruñean. Denek helburu bera dute, baina bakoitzak bere egiturak, kudeatzeko modua eta funtzionamendua ditu, udalari bakoitzaren errealitate eta beharretara egokituta. Aipatzekoak dira Donostiako eta Ondarroako etxeak, kudeatzen baitituzte Udalaren, erakunde feministen eta emakumeen ehun asoziatiboaren artean.

Etxe hauek sortu zituzten politika feministak bultzatzeko eta emakumeen erreferente izateko. Leku hauek elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko dira, eta, era berean, abiapuntu dira emakumeek parte har dezaten udalerriko politikan eta bizitzan. Era askotako gaiak izaten dituzte aztergai eta herriko kolektibo feministen eta emakume-taldeek kezka eta jakin-mina jasotzen dira, besteak beste, teoria, literatura edo genealogia feminista, indarkeria matxista, autodefentsa feminista, sexualitatea, abortatzeko eskubidea, emakumeen arteko ahizpa-tasuna; aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da; liburutegi espezializatuak antolatzen dira...

Aurrekariak

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarriko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, iazko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea eta errealitate bihurtzeko plangintza edo bide-orria lantzea, eta, azkenik, herriko nahiz eskualdeko eragile eta herritarrak era honetako ekipamenduaren beharraz sentsibilizatzeko komunikazio-kanpaina garatzea.

Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Urte horretan, era berean, Emakumeen Etxearen lan-talde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Udal gobernua, oposizioko zinegotziak eta emakumeen ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, elkarlanean proiektua kokatzea eta minimo batzuk definitzea eta adostea. Horrela, hainbat gai tratatu dira: etxearen arrazoiak, definizioa, lan-ildoak, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada feministako ordezkariak, emakumeen taldekoek, emakume norbanakoek eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Parte-hartze prozesua Elhuyar Aholkularitzako teknikariek garatu da.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailtik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume inguruk hartu dute parte.

Horiek horrela, Elduaingo Udaleko udal taldeek Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo konpromisoak hartzea udal esparruan:

- 1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.
- 2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.
- 3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).
- 4.- Baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

BAKARRA:

Presidentziak aurkeztutako mozioa onartua gertatzen da.

Eta, 08.25 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2019ko maiatzaren 23an.

O.e.
Alkateak ,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Idazkari-Kontu-Hartzaileak,

Maria Pilar Garmendia Miguel